



## Publikoa da bidea



LURDES IMAZ  
EHIGE-KO KOORDINATZAILEA



'Hazitik gora' da aurtengo Euskal Eskola Publikoaren jaiaren leloa. EHIGE

**A**pirilaren 7an Hezkuntza Hitzarmena adostu zuen Eusko Legebiltzarreko gehiengo politikoak, etorkizuneko Euskal Hezkuntza Legearen oinarri izango den dokumentua. Orduan salatu genuen akordio horrek publiko-privatu hezkuntza-eredu duala betikitzen zuela, ez zuela lehenesten eskola publikoa eta arriskuan ipintzen zuela bere etorkizuna.

Denborak arrazoia eman digu. Maiatzaren 5ean iritsi zen

planifikazio dekretu berriaren zirriborroa Eusko Legebiltzarrera, zeinek Hezkuntza Hitzarmenaren alor pribatizatzaileenak garatzen dituen. Gogora dezakegu dekretu honek zehazten dituela

**HEZKUNTZA  
HITZARMENAK MAILA  
BEREAN JARTZEN DITU  
IKASTETXE PUBLIKOAK  
ETA PRIVATUAK**

ikastetxeen eskaintza egiteko irizpideak.

Alde batetik, maila berean jartzen ditu ikastetxe publikoak eta pribatuak, euskal hezkuntza zerbitzua delakoaren bidez. Etorkizunean ez dira egongo ikastetxe publiko eta pribatuak, baizik eta euskal hezkuntza zerbitzua osatzen duten ikastetxeak. Hala, desnaturalizatu egiten du publikotasunaren balorea eta berdin finantzatu dira bi sarea, dioxosozko "doakotasuna" medio.

Bestalde, ez dago inongo bermerik egungo ikaspostu publikoak mantentzeko, arriskuan ipintzen ditu lerro bakarreko ikastetxeak eta "hezkuntza aniztasuna" bermatu behar dela bezalako eufemismoak jasotzen ditu.

LOMLOEK zonalde guztietan plaza publikoak bermatu behar direla dioten arren, ez dago horren arrastorik EAEko dekretu berrian. Ikastetxe publikoei lehenetsuna ematen zieten artikulua desagertu egin dira dekretu berri honetan, eta ez du jasotzen plaza publiko berriak sortzeko konpromisorik.

Azken finean, eskarian oinarritutako planifikazio bat planteatzen du dekretu berriak, hain zuzen, jadanik porrot egin duen eredu bat, ez dizkielako bermatzen ikasle guztiei aukera berberak.

### ESKOLA PUBLIKOA MERKATUTIK ATERA BEHAR DUGU, HONEN BALOREAK ERDIGUNEAN JARRIZ

Egun indarrean dagoen planifikazio dekretuak (2009) gain eskaintza pribatua eta segregazioa sortu ditu, eta badirudi dekretu berria bide beretik doala.

Horren aurrean, eskola publikoa lehenetsiko duen planifikazioa aldarrikatzen dugu:

Ikasle guztiei aukera berdina bermatuko dizkion planifikazio bat. Plaza publiko berriak sortuko dituen, gaur egungo dualtasunetik atera eta eskola publikoa erdigune izango duen

hezkuntza-sistema bat sortuko duena.

Ikaspostu publikoak betetzea lehenetsiko duen eredu behar dugu, ez itunduz plaza pribatuak baldin eta plaza publikoak baldin badaude.

Eskola publikoan inbertituko duen eredu bat, familia eta ikasleei kalitatezko hezkuntza eskainiko diena, arlo hauetan besteak beste: pertsonala; azpiegitura eta zerbitzuak; berrikuntza programak, kalitatezko erantzuna emango diotenak aniztasun egoerari; hezkuntza ez-formalerako programak.

Azken finean, eskola publikoa merkatu sistematik atera behar dugu, elkarrekin lan egingo duten ikastetxe publikoen sareak sortuz eta publikotasunaren baloreak erdigunean ipiniaz.

**aek** euskara praktikoa

**Familia barnetegiak**

Euskara ikasteko  
Seme-alabekin euskaraz aritzeko

**Udan ere, zure bidelagun**  
En verano, seguimos acompañandote

Uztailaren 4tik 15era  
Uztailaren 18tik 29ra  
Abuztuaren 1etik 12ra

www.aek.eus

udabarnetegiak@aek.eus  
673 200 100 / 916 464 000

**Bastida eskola**

BASTIDA



Kultura eta begirada andanak bat egiten dute Bastida eskolan, eta, aniztasun honetatik abiatuta, hezkuntza prozesu propioa abiatu dute, zenbaki honetan bertan Itziar Gabilondo zuzendariak azaldu duen moduan. Prozesuan, ikasleen konpetentzia emozionala garatzen saiatzen dira, beti ere, berdintasuneko harremanetan oinarrituta. Lore guztiak aldi berean loratzen ez direla argi edukita, ikasle bakoitzaren ikaskuntza prozesuaren erritmoa errespetatzen dute, "inklusio erreala" lortzea helburu izanda. Prozesu horretan argi dute familien ekarpena ezinbestekoa dela, baina baita instituzioen laguntza ere.

**Eltziego eskola**

ELTZIEGO



Eskola publikoaren jaira eskulan berezia eramango dute Eltziego eskolako umeek: *Hazitik gora!* aurtengo leloa osatzen ari dira ardo botilen kortxoekin. Ikasgela bakoitzean hizki bat osatzen ari dira, eta, behin denak bateratuta, eskulan hori Bastidako eskolan utziko dute igandean, apaingarri moduan. Horrez gain, Beatriz Saenz de Samaniego zuzendariak azaldu duenez, asteak daramatzate klaseetan euskal eskola publikoaren gaia jorratzen, ikasleak ere horren garrantziaz jabetu daitezten. Eltziegoko umeek gain, Samaniego, Navaridas, Mañueta eta Villabuenako ikasleak dituzte 1934. urtean martxan jarri zen eskola aitzindari horretan.

**Lantziego ikastola**

LANTZIEGO

Igandeko jaira joateko animatzen buru-belarri ibili dira azken asteotan eskualdeko D ereduko ikastetxe publiko bakarrean: gurasoekin egindako komunikazio guztietan, bai paperean zein elektronikoan, horri erreferentzia egin diote, Ana Ortega ikasketa buruak nabarmendu duenez. Eskolatik ateratzean ere jaiaren abestia jartzen ari dira —sartzeko orduan, beti txalapartaren doinuak entzuten dira Arabako Errioxako inguru pribilegiatu horretan—, eta ikasleek etxera eramanez abestia idatzita, ikas dezaten. Goiko mailetan Eneko Axperen biografia lantzeari ekin diote. Kalitatezko



hezkuntza euskaraz bermatzea dute helburu eragin eremuko herrietan: Lantziego, Kripan eta Bilar. Horrez gain, erantzukizuna, begirunea, ulermena, autonomia, esfortzua, integrazioa, konpromisoa, ilusioa, baterako hezkuntza, justizia eta elkartzuna dituzte abiapuntu.

**Ramiro de Maeztu HLHI**

OION

Igandera begirako prestakizunekin ibiltzeaz gain, Arabako Errioxako irakasleen artean formakuntza saio bat egin dute Oionen, maiatzaren 25ean. Jordi Collet hezkuntza adituaren eskutik, "komunitatea, familia eta eskolaren inguruan" aritu ziren hizketan, eta arras interesgarria izan zela dio Ramiro de Maeztu ikastetxeko Mikel Colomo ikasketa buruak. Azken egunotan eskolan Txapel punk taldeko Iñigo Arrasate ibili da ere, eta zerbait esku artean badute ere, momentuz, ez dute misterioa argitu nahi. Oiongo ikasleek gain, inguruko beste herri batzuetako haur guztientzako eskola publikoa da Ramiro de



Maeztu: Moreda, Labraza, Gorrebusto, Ekora, Assa, Serna, Meano eta Lapoblación (Nafarroa). 350 haur inguru hartzen ditu, 2 urtetik 12 urtera bitartean, eta B eta D ereduak eskaintzen ditu. Errespetua, integrazioa, parte-hartzea, berdintasuna eta tolerantzia dituzte abiapuntu.

**Victor Tapia HLHI**

GUARDIA



Boluntario bila dabilta Guardiako ikastetxean Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin batera arituko diren dantzariak lortzeko, baina "beldur eszenikoa uxatzea" erraza ez dela aitortu du bertako zuzendari Oihane Eliok. Gainerakoan, guraso elkartearen eta zuzendaritzaren artean egin beharreko prestakizunekin ari dira igandeari begira, eta baita gurasoen eta ikasleen artean informazioa zabaltzen ere. Guardia, Paganos, Leza, Lapuebla de Labarca eta Bilarko ikasleak biltzen ditu ikastetxeak, eta A eredia amaierako urteetan mantentzen bada ere, B eredia da nagusi eskolan.

**Samaniego BHI**

GUARDIA



Guardiako Samaniego ikastetxeko ordezkariak igandeko hitzorduan egongo direla aurreratu du bertako zuzendari Juan Francisco Bengoetxeak. Jaiari buruzko informazioa zabaltzen ari dira guraso eta ikasleen artean, besteak beste, web orrialdearen bitartez. Eskualdeko institutu publiko bakarra da Samaniego, eta 22 herrietako ikasleak biltzen ditu bere instalazioetan. "Ez dakit nik horrenbeste herri hartzen dituen beste ikastetxerik egongo ote den Euskadin", dio Bengoetxeak zuzendariak, eskualdean garraioa beti buruhausteen iturri izan ohi dela gogoan izanda.